



XABI FERNANDEZ ▶ EUROPAKO BELA TXAPELKETA

## «Garaipenak atseden hartzeko aukera emango digu»

IBARRA ▶

Olinpiar Jokoei  
begira dago  
orain Europako  
txapelarena

EUROPAKOA ▶

«Ondo hasi  
ginen eta maila  
mantentzea  
lortu genuen» ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Unai Muñoa  
berrobitarra  
Bertsolari  
Txapelketan  
aurrera

Final-laurdenetan da;  
asteburu honetan  
Arkaitz Zelaia  
bidaniarra ariko da ▶ 5

ARESO ▶

Udalak diru  
gutxiago  
jaso du  
aurten ehiza  
enkantean

«Beste urtetan  
jasotakoaren erdia  
besterik ez dugu  
lortu», dio alkateak ▶ 7



I. GARCIA

## Ekin diete dagoeneko Ubare auzoa eraberrituko duten lanei

ZIZURKIL ▶ Egun bide bat eraikitzen ari dira trenbidearen ondoan  
eta lan hau 2008ko maiatzean amaitzea aurreikusten dute ▶ 4

07-08 DENBORALDIA

OSTIRALA  
URRIAK 5-20:30  
ILLUNBE

SHINSEBASTIAN  
GIPUZKOAN BASTETAN

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK  
Bruesa-GBC / Basket Cai Zaragoza  
saskibaloitzaileen arteko partidarako  
lau sarrera pare zozketatuko ditu!

Parte hartzeko, deitu gaur 15:00ak arte zenbaki honetara: **943 65 56 95**

FORMAZIO OKUPAZIONALA (Langabetuentzat) (DOAKO IKASTAROA)			
IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
WEB ORRIEN DISEINU ETA PROGRAMAZIOA	210	2007-11-05	16:00-19:00
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA	530	2007-10-30	08:00-15:00
KONTABILITATE KUDEAKETARAKO OSOKO SISTEMA	250	2007-02-28	09:00-13:00

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47 -  
Santa Iuzia, 17 - 20400 TOLOSA  
idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com

HEZKUNTZA, LINGERTSATE ETA  
MERKETA SAILA  
LEKOKO IRABAZLEZ  
GOBERNO VASCO

## TOLOSA ▶ KULTURA



39. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa urriaren 31tik azaroaren 4ra izango da. ESTI EZEIZA

# Udazkenaren hasierarekin, kultur ekitaldi garrantzitsuak

Hurrengo astean Berazubi auzoko festak izango dira, eta hilaren 31n Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa hasiko da

## HARRIET BELLOSO

Uda duela bi aste amaitu zen, eta aurten udazkena ekitaldiz beterik dator. Hilabete honetan pelikula, kontzertu eta antzerki erakargarriak izango ditugu ikusgai, beraz, etxean geratzeko aitzakiarik ez dugu. Gainera, Berazubi auzoan festak izango dira.

## ARANBURU JAUREGIA

**Pintura eta eskultura erakusketa.** Gotzon Etxeberria (*Olibondoak badu bihotzik*) eta Josep M. Codina (*Orografia Personal*). Larunbata, hilaren 6an, izango da azken eguna. **Argazki erakusketa.** *Jesus Elo-segi 1907-1979*. Larunbata, hilaren 6an izango da azkeneko eguna. **'Ipuinartean II'.** Ereite elkarte multikulturalaren erakusketa. Urriaren 13tik azaroaren 10 arte.

## KULTUR ETXEA

**Gidatzeko eraginkorri buruzko ikastaroa.** Ingurugiro departamentuak antolatuta. Urriaren 10ean arratsaldeko bostetan. **Odol ematea.** Odol Emaileen hileroko odol ateratzea. Urriaren 10ean, 18:00etan.

**1. Zinema eta Kooperazio Emanaldia.** Cubako egileen film proiektzioak. Mugarik

Gabe elkarteak antolatuta. Urriaren 15etik 18ra, egunero, 20:00etatik aurrera. **Laskorain ikastolaren 40. urterrena.** Laskorain ikastolaren 40. urterreneko argazki erakusketa. Urriaren 19tik 28ra arte izango da ikusgai.

## LEIDOR ARETOA

**Euskarazko zinea.** Urriaren 4an eta 23an *Tinko* filma euskarazko ikasleentzat. Bi emanaldiak 09:45etan izango dira. **Zinema.** *El ultimatum de Bourne* (Urriaren 6tik 8ra), *Sigo*

*como dios* (Urriaren 12tik 15 arte), *Caotica Ana* (Urriaren 19tik 22ra), *¿Y tu quien eres?* (Urriak 26, Kutxa- Urrezko Zerbitzuak antolatutako emanaldi berezia), *La carta esferica* (Urriaren 26tik 29ra). **Haurrentzako zinema.** *Las tortugas ninja* (Urriak 6 eta 7, 17:00etan), *Los cuatro fantásticos y Silver Surfer* (Urriaren 12tik 14ra, 17:00etan), *Doraemon eta dinosaurio txikia* (Urriak 21, 17:00etan), *Locos por el surf* (urriak 28, 17:00etan).



Iaz ospatu ez arren, aurten berriz izango dira Berazubiko festak. M.S.S.

**Zine Foruma.** *Bamako* (Bihar 19:15 eta 21:45ean), *Delirious* (urriaren 11n, 19:15 eta 21:45ean), *La soledad* (urriaren 18an, 19:15 eta 21:45ean), *Borrachera de poder* (urriaren 25ean, 19:15 eta 21:45ean).

**Antzerkia.** *Bota patsa* (etzi, 20:00etan)

**Haurrentzako Antzerkia.** *Karabas* antzerki musikala (urriaren 13an, 17:00etan), *Pizti domatzailea* (urriaren 27an, 17:00etan).

**'Irudi biziak'.** Osasun Hezkuntzako proiektzioa ikasleentzat (urriaren 17an, goizez).

**Benito Lertxundi.** Udaberri dantza taldearen 50. urteurreneko ekimena (urriaren 20ean, 20:00etan).

## BESTERIK

**Kalkuta Ondoan elkarteak antolatutako erakusketa.** Errota Haur Liburutegian, hilaren 9tik 19ra.

**Amaya Arberas.** Sopranoak Hilaren 10ean eskainiko du kontzertua Udala Musika Eskolako aretoan, 19.30ean, sarrera librea izanik.

**Berazubi auzoko festak.** Urriaren 11tik 14ra.

**Nuuk-At eta No Humano.** Bonberenean, hilaren 11an izango da kontzertua 22:30ean.

**Natural Project eta Gose.** Bonberenean hilaren 12an 22:30ean.

**Ipuinartean II proiektuko inagurazio festa.** Ereite elkarte multikulturalak antolatuta. Urriaren 13an Andre Mari plaza edo Zerkausan.

**'007 Casino Royale'.** Bonbereneako zinekluban hilaren 14ean arratsaldeko 19:00etan.

**Golpe de Estado, Combat Rock eta Sospechosos.** Bonberenean, hilaren 19an, 22:30ean.

**Hr eta Stepy Selekth.** Bonberenean, hilaren 20ean 22:30ean. Lehenik, 16:00etan Skate txapelketa eta Graffiti erakustaldia.

**Latzen eta Governors.** Hilaren 26ean Bonberenean ariko dira, 22:30ean.

**Borrokari eta Hotel.** Urriaren 27an 22:30ean ariko dira, Bonberenean.

**'Jackass'.** Bonbereneako zinekluban hilaren 28an, 19:00etatik aurrera.

**San Esteban auzoko Kultur Astea.** Hilaren 17tik 21era, ekitaldi ugariarekin.

**Liburutegiaren eguna.** Hilaren 24ean izango da, baina urriaren 22tik aurrera ipuin kontaketa, lehiaketa, zozketa eta irakurketa gidak izango dira, besteak beste.

**Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa.** Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta. Hilaren 31tik azaroaren 4ra arte izango da lehiaketa.

## TOLOSA ▶

## Bertso kabareta Frontoi kafetegian

Tolosako Aitzol Udala Euskaltegiak bertso kabareta antolatu du. Hain zuzen ere, hilaren 19an, ostiralean, izango da ekitaldia, Fronton kafetegian. 23:00etan hasiko da emanaldia.

## LEITZA ▶

## Barriolak 2012ra arte luzatu du kontratoa

Abel Barriola leitzarrak beste lau urtez luzatu du Aspe enpresarekin zuen kontratua. Beraz, 2012ra arte izango du lotura pilota enpresarekin. Pilotariak «gustura» dagoela azaldu du eta bi aldeak «akordiora erraz heldu» direla ere gaineratu du. 19 urte zituela Asegarcerekin debuta egin ostean, 5 urte geroago, 24 urte zituela, kontratatu zuen leitzarra Aspek.

## TELEFONOAK ▶

## Larrialdiak. ((112))

### Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

### Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asuntzio Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

### Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

KOMUNIKABIDEAK ▶

# Txolarrek egitarau oparoa du hasi berri den denboraldirako

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa dela-eta luzeagoa izango da asteazkenetako 'Zortziko Aldrebasa' izeneko tartea

ERREDAKZIOA

Ikasturtea hastearekin batera, programazio berriari ekin dio Txolarre irratia. 2007-2008koa, irratia ezazpigarrena izango da. Joan den urteko saio eta ahotsekin batera, beste berri batzuk ere entzun ahal izango dira datozen hilabeteetan.

Oporretako atsedendia iren ondoren, iraila hasieran itzuli zen Tolosaldeko ahotsa magazina, Jon Miranda esatariaren eskutik. Berrikuntzei dagokionez, saio honetan bertan aldatu izango dira. Besteak beste, abiatu berri den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa bertutik jarraitzeko, luzatu egingo da asteroko Zortziko Aldrebasa izeneko tartea. Asteazkeneko,



Txolarre ezagutzeko aukera izango da hilaren 20an. E. EZEIZA

eguerdiko hamabietan hasita, txapelketaren inguruko informazioa eskainiko dute. Bestalde, eguneroko magazin honetako unerik onenak, arratsaldeetan errepikatuko dira,

18:00etatik 20:00etarako tartean.

Programazioa osatzeko asmoz, arrosa irratik saretik jasotako zenbait saio ere entzun ahal izango dira Txolarre irra-

tion. Gainera, beti bezala, eskualdeko herritarrei beraiek nahi duten bezalako saioak egiteko aukera luzatzen diete. Era horretan, Koldo Otamendiren eskutik, *Bide okerretik* saioa izango da asteazkeneko. Larunbat goizetan berriz, *Hitzak hegan* magazina izango da, irratik munduan trebatu nahi duten Tolosaldeko gazteek egindakoa. Txolarrek ekointzitateko saioekin amaitzeko, ostiral iluntzeetan, astean zehar irratian egon denaren laburbilduna izango da *Hamaika entzuteko*.

**Txolarre ezagutzeko aukera**

Txolarre ezagutzeko aukera luzatu nahi diete eskualdeko gazte, heldu, elkarte eta mota guztietako eragileei. Hau da, irratia ezagutu nahi duten guztiei. Horregatik, Anoetan duen egoitzaren atea irekiko ditu hilaren 20an, 11:00etan.

MAHAI TENISA ▶

## Bi partida galdu eta bat irabazi dute Olaederrakoek

Asteburukoa izan zen ligako lehen partida, Olaederra mahai tenis elkarteontzat



Iker Mugerza, jokoan. HITZA

ERREDAKZIOA

Zorte oso ezberdina izan dute Olaederra Mahai Tenis elkarteak kideek. Izan ere, bigarren mailan jokatzeko duen Usabal MTRI Donostiako Krafft Atletiko gailendu zirtzaion asteburukoan, 4-2ko emaitzarekin. Erkidego mailako ligan beriz, emaitza bera izan bazen ere, oraingoan eskualdekoen alde izan zen. Olaederrako A taldeak Portugaleten jokaturako norgehiagokan Gorazde-Barakaldo garaitu zuen. Asteburu honetan Donostiako Krafft Atletiko izango dute aurkari.

Olaederrako B taldeak etxean jokatu zuen igandean, Olaederra kiroldegian hain zuzen ere. Etxadi Super BM izan zuen aurkari, eta honek 4-0 garaitu zuen eskualdeko taldea. Hurrengo partida Bilbon izango dute, Artxandako-Rekalderen kontra.

**ASTEKO EGITARAUA ▶**

**ASTELEHENA**

**09:00-13:00.** Orduoro *Info7* irratiko albiste aurrerapena.  
**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa*. (13:00etatik 13:30era: *Info7*ko eguerdiko albistegi nagusia).  
**18:00-20:00.** *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
**20:00-21:00.** *Ortzadarra* (Hala bedi irratia). Euskal literaturari eta mitologiari buruzko saioa.  
**21:00-22:00.** *Izarrak eta ilargia* (Tas Tas irratia). Musika klasikoari buruzko saioa.

**ASTEARTEA**

**09:00-13:00.** Orduoro *Info7* irratiko albiste aurrerapena.  
**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa*. (13:00etatik 13:30era: *Info7*ko eguerdiko albistegi nagusia).

**18:00-20:00.** *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
**20:00-21:00.** *Gora Euscadi Chistulari* (Matrallako irratia). Aktualitateaz umorez jorratzen duen saioa.  
**21:00-22:00.** *Soinuen errepublika* (Txapa irratia). Musika elektronikoaren inguruko saioa.

**ASTEAZKENA**

**09:00-13:00.** Orduoro *Info7* irratiko albiste aurrerapena.  
**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa*. (13:00etatik 13:30era: *Info7*ko eguerdiko albistegi nagusia).  
**18:00-20:00.** *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
**20:00-21:00.** Irauli uhinak (Gaztesarea). Gazte informazioa biltzen du.

**21:00-22:00.** *Bide okerretik*. Musika talde berreinen inguruko informazioa, elkarrizketak, disko berriak...

**OSTEGUNA**

**09:00-13:00.** Orduoro *Info7* irratiko albiste aurrerapena.  
**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa*. 13:00etatik 13:30era: *Info7*ko eguerdiko albistegi nagusia).  
**18:00-20:00.** *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
**20:00-21:00.** *Bertokoko* (Hala Bedi irratia). Bertsolaritza eta umorea uztartzen dituen saioa.  
**21:00-22:00.** *Berberin* (Txapa irratia). Jazz eta antzerako musiken inguruko irratsaioa.

**OSTIRALA**

**09:00-13:00.** Orduoro *Info7* irratiko albiste aurrerapena.  
**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa*. 13:00etatik 13:30era: *Info7*ko eguerdiko albistegi nagusia).  
**18:00-20:00.** *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
**20:00-21:00.** *Hamaika entzuteko*. Txolarre irratian astean zehar izan denaren inguruko laburduma da hau.  
**21:00-22:00.** *Sound System* (Molotoff irratia). Besteak beste musika reggae jorratzen duen saioa.

**LARUNBATA**

▶ Asteko kronika (*Info7*).  
▶ *Hitzak hegan*.  
▶ *Hamaika entzuteko*.



**Hogiezinen Agentzia**

Pablo Gorosabel 40  
1. solairua • 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel./faxa: 943 65 55 87  
Sakelakoa: 669 368 994

<p><b>Alegia.</b> Eraikuntza berria, 13 etxebizitza 2 eta 3 logelakoak trastelekuarekin.</p> <p><b>Altzo.</b> Salgai eraberritzeko etxea, 3 etxebizitzetarako, lursailarekin.</p> <p><b>Ibarra.</b> 75m2ko bi solairuko borda eta 10.000 m2ko lursaila.</p> <p><b>Anoeta.</b> Harritzko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai.</p> <p><b>Berritzeko.</b></p> <p><b>Betelu.</b> Hiru logelako etxebizitza. Egongela, sukaldea, bi bainugela,</p>	<p>terrazta eta altzariek. Egoera ezin hobean.</p> <p><b>Ibarra.</b> Etxebizitza, 3 logela, sukaldea eta berogailua.</p> <p><b>Berokuntza</b> eta igogailuarekin.</p> <p><b>Ibarra.</b> Bi logelako etxebizitza. Eraberritua. 258.435 euro.</p> <p><b>Irrara.</b> Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Kanpoaldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.</p> <p><b>Tolosa.</b> Belaten, garaje itxiak 25 m2tik hasita.</p>	<p><b>Tolosa.</b> San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta gutzitza berritua.</p> <p><b>Tolosa.</b> Errementari kalean, 3. solairuan, hiru gelakoa. Eraberritua.</p> <p><b>Tolosa.</b> Aldaba auzoan, 3 solairuko etxe atxikia, garaje eta lursailarekin. 297.000 euro.</p> <p><b>Tolosa.</b> Errementari kalean, 62 m2ko etxebizitza 5. solairuan, hiru logelakoa. Garajea aukerazkoa.</p> <p><b>Tolosa.</b> Berazubini, eraberrituriko etxebizitza, kanpoaldera, ikuspegi ederrak.</p> <p><b>Tolosa.</b> Bialaren ondoan 50 m2ko eraberritutako etxebizitza salgai. Garaje zabalarekin.</p> <p><b>Tolosa.</b> Zumalakarregi kalean, etxebizitzak 1. eta 4. solairuan.</p> <p><b>Tolosa.</b> Larramendin, pisu altua, igogailuarekin, egoera bikainean, garajea eta trastelekuarekin.</p> <p><b>Tolosaldea.</b> Baserrira 10.000 m2ko lursailarekin, egoera onean.</p>
---	---	--

## ANOETA ▶ KZGUNEA

## Tutorearen bisita izango dute bihar goizean

Izenpe txartela erabiltzen ikasteko doako ikastaroak antolatu ditu Udalak

## ERREDAKZIOA

Anoetako KZgunean tutorea-  
ren bisita izango dute, bihar,  
09:00etatik 11:00etara. Gero,  
ohi den bezala, irekita jarraitu-  
ko du 13:00a arte. KZgunea  
astearte, asteazken eta oste-  
gunetan dago irekita  
11:00etatik 13:00etara.

KZgunean bertan Izenpe  
txartela erabiltzen ikasteko  
ikastaroak antolatu dituzte.  
Izenpe txartela agiri digital  
moduko bat da eta horren bi-  
tarte onuradunek sartzeko  
aukera dute administrazioek  
herritarren zerbitzura inter-  
net bitartez jartzen dituzten  
zerbitzu telematikoetara.

Besteak beste, udal tramite  
edo izapide desbedinak egin  
ahal dituzte: errolda kontsul-  
tatu, udaleko tasak eta zergak,  
ordaingiak, herritarren  
padriaren ziurtagiri elektro-  
nikoa eskatu... Agiri pertsonal  
honek ere balio du Udal Libu-

rutegian maileguak eskatze-  
ko, KZgunean internet saioei  
hasiera emateko eta Abraham  
Olano kiroldegira sartzeko.

Txartela udaletxean, Udal  
Liburutegian (liburutegiko  
bazkideek) edo Abraham Ola-  
no kiroldegian (kiroldegiko  
bazkideek) eskura daiteke,  
doan. Udalak ikastaroak anto-  
latu ditu hamabostean behin  
KZgunean herritarrei erakus-  
teko txartela nola erabili daite-  
keen. Doan dira ikastaroak eta  
ordubete irauten dute.

Ikastaro hauek egiteko  
ezinbestekoa da txartela edu-  
kitzea. Hurrengo ikastaroak  
egun eta ordu hauetan antola-  
tu dituzte: hilaren 18an, oste-  
guna, 09:00etatik 10:00etara  
eta 10:00etatik 11:00etara;  
azaroaren 15ean, osteguna,  
16:00etatik 17:00etara eta  
17:00etatik 18:00etara, eta  
azaroaren 29an, osteguna,  
16:00etatik 17:00etara eta  
17:00etatik 18:00etara.

## ANOETA ▶ UDALA

## Ohiko bilkura egingo du bihar Udalbatzak

Beste gaien artean, bake epailearen eta ordezkararen hautaketa jorratuko dute

## ERREDAKZIOA

Anoetako Udalbatzak ohiko  
bilkura egingo du bihar,  
19:30ean, udaletxean. Beste-  
ak beste, Anoetako bake epai-  
learen eta ordezkoaren hauta-  
keta jorratuko dute bileran.  
Beste gaiak hauek izango

dira: AHT Gelditu! Elkarlanak  
aurkezturiko mozioa, UEMako  
estatutu aldaketan onespina,  
Anoeta Lantzenarako orderz-  
kariaren izendapena, Udalbil-  
tzarako ordezkarien izenda-  
pena eta alkatearen ebazpe-  
naren berri ematea. Galdera  
eta erreguekin bukatuko dute.

## ZIZURKIL ▶ AZPIEGITURAK

## Ubare eraberritzea helburu duten lanak hasi dituzte

Trenbidearen ondoan bide bat eraikitzen ari dira egun eta lan horiek maitzean amaituko dituztela aurreikusten dute



Trenbidearen ondoan lurra kentzen ari dira errepidea eraikitzeko. I. GARCIA

## ERREDAKZIOA

Orain gutxi Oria ibaia bidera-  
tzeko hasitako lanen lehen fa-  
seak bide eman dio Ubare ere-  
mua goitik behera aldatuko  
duen hirigintzako lanei. Lan  
hauen amaiera 2009ko mar-  
txorako aurreikusitako dute, eta al-  
patu proiektu hau Eusko Jaur-  
laritza gauzatzen ari bada ere,  
Zizurkilgo Udalak «lan hauen  
nondik-norakoa gertu-gertutik  
jarraitzea» erabaki du, eta, hori  
horrela, informazio-bilkura ba-  
terako deialdia luzatu du se-  
gurtasunarekin loturiko gaiak  
eragile guzietan eztabaidatze-  
ko.

Eusko Jaurilaritzako Ur Zu-  
zendaritzak Mariezcurrena en-

presari esleitu dio 3.329.000  
euroren aurrekontua duen  
proiektua, eta bi faseetan bana-  
tua dago. Horiatariko lehena,  
egun gauzatzen ari dena, tren-  
bidearen paraleloan bide bat  
eraikitzea da, eta datorren  
urteko maitzean amaitzea au-  
rreikusitako dute. Bidea egiteko  
kentzen ari diren lurra, Oria  
ibaian kamioientzako pasabi-  
de bat egiteko erabiltzen ari  
dira. Bigarren faseari, 2008ko  
ekainean ekingo diote, betiere  
udan ibaiak emari txikiagoa  
duela kontuan hartuta.

## Pasabidea, 2008an

Aipatu lan hau 2009. martxoan  
erabatean amaitu izatea aurrei-  
kusitako dute. «Esan beharrik ez  
garrantzi handikoa dela herri-  
errentzat», azaldu du Udalak.  
Eusko Jaurilaritzak lanak has-  
ten ez zituen bitartean, Zizur-  
kilgo Udalak ezin zuen Ubare  
eremuko biziberritze lanak egi-

ten hasi. Udal hirigintzak  
11.875 metro koadro azaleran  
jardutea jasotzen du, eta ho-  
rrek «nabarmen areagotuko  
du eremu horretako auzota-  
ren bizi-kalitatea». Honekin  
lotuta, Zizurkil eta Villabonako  
udalek 2008ko irailean aldatu-  
ko dute oinezkoen egungo pa-  
sabidea beste berria jarri.

Eusko Jaurilaritza lan hauen  
adjudikazioduna izateak, «ez  
du kentzen Zizurkilgo Udalak  
etengabeko jarraipena egitea,  
proiektua ezarritakoaren ara-  
bera gauzatzen ari dela bizila-  
gune bermatzeko», dio Uda-  
lak berak. Hori horrela, eta la-  
nak egiten diren bitartean,  
Udalak hainbat bilera egingo  
ditu arduradunekin aurreiku-  
sitako jarduketara guztien zeha-  
tasunak ezagutzeko.

Aste honetan bertan egingo  
dute bilera horietako bat. Ber-  
tan Eusko Jaurilaritzako Ur Zu-  
zendaritzako teknikariek, Uda-  
leko langile eta Mariezcurrena  
enpresako ordezkariek Udal-  
batzako kide guztiei behar den  
informazioa eskainiko die her-  
riko bizilagunei arriskuak eki-  
diteko hartu dituzten segurtasun  
neurrien inguruan. Bilera  
honetan bertan jakinaraziko  
dituzte gauzatze epeak eta ar-  
gitu dituzte ere plantatzen  
dituzten zalantzak.



“Natura bezain eraginkorra”

**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban auzoa, 14-A  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38  
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

**PEUGEOT 308  
berria**



## iragarki laburrak ▶

## LANA

Tabernaria. Amasako Iturri-  
Goxo jatebearen tabernari bat  
behar dugu arratsaldeetarako.  
943 69 12 10.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA ▶

# Unai Muñoa Usurbilen lehena egin ondoren, final-laurdenetan da

Tolosaldeko laurak parte hartu zuten bi egunetan; larunbatean Arkaitz Zelaia bidaniarra ariko da Ataunen



Unai Muñoa Usurbilen 287,5 puntu lortu zituen. BERTSOZALEEN ELKARTEA

**ERREDAKZIOA**

Unai Muñoa berrobitarrak Usurbilgo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako Usurbilgo kanporaketan onena izan zen. 287,5 puntu lortu zituen bertan, Arkaitz Oartzabalen aurretik (berak 273 puntu lortu zituen). Txartel honekin aurrera jarraituko du berrobitarrak. 200 lagun inguru kabitu ziren Sutegi kultur etxean, eta 50 bat kanpoan geratu ziren lekuri gabe. Saio ona izan zen Usurbilen jokatu zena, adituen arabera eta, batez ere, bertsolarien nortasunetik abestu izanak eman

zion balioa joan den larunbateko arratsaldeari. Zortziko handitik egoki hasi ziren sei bertsolariak kantari, tartean, Iñigo Gorostazu berastegierra, baina lanaldiak aurrera joan ahala «hasi ziren denak ere dir-dir egiten». Hala ere, ofizio eta irmotasun handiena azaldu zutenek lortu zuten puntu gehien, Muñoak eta Oartzabalek. Muñoa «indartsu» jardun zen hasieratik, kantaera sendoz, eta bakarkako lanean «ausardia handiz» kantatu zuen. Zubiak ere «kartzelako lanean nortasun handiko bertsolaria dela erakutsi du». Gainontze-

koek ere ideia politikak ibili zizuten ahotan, baina «nerbioen itzalak jasan zien». Saio ederra, beraz, Usurbilgoa; orain arte «sailkapen fasean ikusi den maila gorenean eusteko modukoa».

**Zumarragan eskualdeko bi**

Zumarragan ere eskualdeko bi bertsolari izan ziren; Beñat Iguaran (Villabona) eta Aritz Garin (Zizurkil) gazteak. 320 bat lagun bildu ziren, aretoa leporaino beteta, beraz. Saio hau ere «txukun joan zen, berebiziko distirarik gabe», baina «Zubeldiaren umorezko ateraldiak final-laurdenetarako txartela merezi izan zuten», epaileen iritziz. Beñat Iguaranen freskotasuna eta arrazoimen sendoak «gustura» utzi zituen zaleak, baina «nerbioek ez zuten gaztea gupidatu eta puntuazioaren eragina izan zuten». Guztira 254 egin zituen, eta Garinek, 233,5.

**Larunbatean Zelaia**

Datorren larunbatean Ataunen Arkaitz Zelaia hartuko du parte. Bidaniako Herri Antzokian 18:00etan izango du saioa. 8 kanporaketa egin dituzte dagoeneko, eta guztira 12 dira. Ikuslegoari dagokionez, jende asko ari da joaten.

ZIZURKIL ▶ INGURUMENA



Landa-etxeen kanpoaldea txukun mantentzea garrantzitsua da. HITZA

## Landa-etxeen inguruko itxura zaintzeko eskolak

Fraisoron egingo duten ikastaroa hiru egunekoa izango da eta 36 euro balio du

**ERREDAKZIOA**

Nekazalturismo eta landa-etxeen inguruko itxura zaindu behar dela kontuan izanda, bertako bisitariek inguruneaz gozatzeko eta paisaia mantendu eta era egokian barnerratzeko ikastaroa antolatuko dute Fraisoron. Itsasmendikoi Fraisorok prestatutako ikastaroan nekazalturismoaren ingurua zaindteaz ariko dira; 10 orduko ikastaroa da, nekazalturismo-ko eremuan. Ikastaro honen helburua honako da: lorezaintzako oinarriko ezagutzak jasotzea, honela landa-ostatu-tako ingurua zaintzeko. Ikastaro teoriko eta praktikoa honen egitarauaren baitan gai hauek jorratuko dituzte: lorategien historia eta diseinua, lore eta landareen fisiologia eta bertako espezieen berreskuratzea.

Ikastaroa Zizurkilen egingo

**IKASTAROA ▶**

**Gaia.** Nekazalturismoa zaintzeko ikastaroa.  
**Egunak.** Urriak 22, 29 eta azaroak 5.  
**Ordua.** 15:00etatik 18:00etara.  
**Herria.** Zizurkil.  
**Tokia.** Fraisoron.  
**Prezioa.** 36 euro.

dute, Itsasmendikoi Fraisoron, hain zuzen ere. Hiru egunetan izango da bakarrik: hilaren 22an, 29an eta azaroaren 5ean, hain zuzen. 15:00etatik 18:00etara iraingo du. Matrikularen prezioa 36 eurokoa da. Izen-ematea Itsasmendikoi Fraisorora deituz egin daiteke, telefono zenbaki honetara: 943 69 21 66. Bestela, e-maila erabiliz ere eman daiteke izena: [ylegarra@itsasmendikoi.net](mailto:ylegarra@itsasmendikoi.net).

**AMEZKETA ▶**

### Zaragozako Pilarrera bidaia antolatuko dute

Amezketako Udalak 60 urte-tik gorako amezketarrentzat Pilatika egunean (urriak 12) Zaragozara (Aragoi, Espainia) bidaia antolatuko du. Irteera 07:30ean Ergonetik atera, gero Plazan eta Ugarten geratuko da autobusa. Ondoren Castejonean gosalduko dute. 14:30ean bazkaria Zaragoza inguruan, baina denbora gehiena Zaragozan bertan egingo dute.

**AMEZKETA ▶**

### Yoga ikastarorako bilera bihar egingo dute

Aurten ere, yoga ikastaroa antolatzeko asmoa dute Amezketan. Horretarako, bilera deialdia egiten da interesatuta dauden guztientzat. Bilera, bihar arratsaldean, 18:00etan izango da, plazako balioanitzeko gelan. Interesatuta dagoena bertara joatea komeni da, bertan biltzen direnen artean erabakiko baita ordutegia, eguna, eta beste hainbat zehaztapen.

**BEDAIO ▶**

### Igandean, festen inguruko afaria, jai giroan

Igandean Bedaioko biztanleek jai giroan egingo dute herriko jaien balantzea. 20:00etan toka txapelketa izango da, eta 21:00etan, berriaz, afari berezia egingo dute, izan ere, mondejua eta ardikia izango dituzte afaltzeko, garaian egokia. Bertan, jaien balantzea gaitzat hartuta bertan elkartean bilduko dira, eta ziur hainbat sorpre-sa izango direla.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

XABI FERNANDEZ ▶ EUROPAKO BELA TXAPELDUNA

# «Europako Txapelketak atsedena hartzen lagunduko digu»

2008ko Olinpiar Jokoei begira, Xabi Fernandezek denboraldia Europako Txapelketa irabaziaz amaitu du

ASIER IMAZ

Europako Bela Txapelketa, Iker Martinezekin taldea osatuz irabazi du Xabi Fernandezek (Ibarra, 1976) Sizilian (Italia). Orain berriz, atsedena hartzen ari da, hurrengo urtean Pekinen (Txina) jokatu diren Olinpiar Jokoei begira.

## Nola joan zaizkizue Sizilian (Italia) igarotako egunak?

Egia esanda oso txapelketa ona izan da. Benetan ondo hasi ginen lehenengo egunetik, eta gero nahiz eta erraza ez izan, maila aste guztian mantentzea lortu dugu. Sei egunetik lautan sailkapen buru egon gara eta nahiko ondo ateratu zaigu dena. Adibidez, aurtengo Munduko Txapelketan, Portugalen, haseratik gaizki hasi ginen eta hori iraultzea zaila izaten denez, 10. postuan amaitu genuen. Horregatik diot ongi hasia oso garrantzitsua dela. Bestalde garaipean hau oso ongi etorri zaigu. Denboraldi amaieran izan da eta atsedena lasai hartzen lagunduko digu.

## '49er' klasean irabazi duzue txapelketa. Zergatik deitzen zaito horrela?

Belan untxi mota asko daude eta Olinpiar Jokoa parte hartzen dutenen artean, 11 ezberdin aurkitzen dira. Horietako bat 49er klasea da. Untziak 4,9 metro dituelako du izan hori.

## Bela txapelketa batean, puntua gutxien dituenak izaten da garaila.

Denak batera ateratzen gara eta ez da denborarik hartzen; lehen iristen denak puntu bat izaten du, bigarrenak bi eta ho-



INIGO TERRADILLOS

rra. Puntu gutxien dituenak irabazten du.

## Itsaso batetik bestera, ezauzgarriak erabat aldatuko dira.

Desberdintasuna izugarria izaten da. Guk ordea, urte guztian zehar zirkuito mundial batean hartzen dugu parte. Batzuk Mediterraneo itsasoan izaten ditugu, beste batzuk Iparraldeko itsasoan; Alemanian, Holanda..., leku bakoitza ezberdina da. Horregatik regata bakoitzera astebete lehenago joan behar izaten dugu, bertako baldintzak ezagutzeko eta untxia prestatzeko. Aldiz, Mundialera edo Joku Olinpikoetara lehenago joaten gara, hilabete lehenago edo.

## Materialetan ezberdintasunik izaten al da untxien artean?

Materialak oso kontrolaturik daude eta denak teoriar gaiza

berdinak erabiltzen ditugu. Praktikan beti ezberdintasun txikiak izaten dira. Untzia prestatzean konparazioak egiten dituzu eta egokiena aukeratzeko saiatzen zara. Hala eta guztiz ere, uretan ongi ibiltzen denak irabazten du. Haize aldatketak, ur korranteak, etab. ongien ikusi eta interpretatzen jakin behar izaten da.

## Hurrengo urtean Olinpiar Jokoa eta Munduko Txapelketa.

Zortea daukagu, izan ere Munduko Txapelketa urtarriaren jokatuko da eta Olinpiar Jokoa abuztuan. Tarte nahikoa dago atsedena txiki bat hartzeko bi lehiaketan artean. Hala eta guztiz ere, urtarriaren 10ean amaituko da Munduko Txapelketa eta hortik aurrera Olinpiar Jokoean pentsatzen hasiko gara erabat.

TOLOSA ▶ KULTURA

## Euskal dantzen ikastaroa abiaraziko dute bihar

Amarozko Dantza Taldeak antolatuta, ostegunetan izango da 20:30ean

ERREDAKZIOA

Amarozko Dantza Taldeak, azken urteotan egin duen bezalaxe, euskal dantzen ikastaroa antolatu du. Fandangoa, arinarina, Bedaioko Ingurutxo, Lantzeko Inauteria, muxikoak eta Larrain Dantza bezalako dantzak erakutsiko dituzte.

Amarozko Dantza Taldeak esan duenaren arabera, «gogo pixka bat edukitzea besterik ez da behar, eta inoiz dantzarik egin ez dutenek ez dute beldurrik izan behar; zerbait dakitenek, berriz, aukera izango dute, berrituz gortutza astintzeko».

Dantza ikastaroa astean ordubeteko saioez osatuko dute. Hauek ostegunetan izango dira, 20:30etik aurrera, auzo elkarteko lokaletan (Amarozko jatetxearen gainean). Antolatzailen esanetan, «ariketa fisikoa egiteko modu asko daude, baina dantza egitea bezain gauza ederragorik ba ote? Eta gainera, gure herriko dantzak ikasiz». Udaberri dantza tal-



Amarozko Dantza Taldea. HITZA

dean parte hartzen duten Dori eta Andoni izango dira irakasleak.

Lehen saioa bihar izango da, eta bertan zehaztuko dute hurrengo hilabeteetan gauzatu duten egitaraua. Interesatuak edota ikastaroari buruzko informazio gehiago nahi dutenek Amarozko Auzo Elkarteko kideekin jar daitezke harremanetan.

IBARRA ▶

## Ekaitz Aramendik 28 urte betetzen ditu hilaren 9an

Ekaitz Aramendi euskal preso ibartarrak urteak betetzen ditu urriaren 9an. Ibarrra Herri Ekimenak argazkia aterako du herritarrekin hilaren 5an Ibarroko plazan. Aramendik 28 urte beteko ditu eta herritar guztiei deialdia luzatu die Herri Ekimenatik, ostiralean 19:30ean herriko plazara ager daitezzen argazkia ateratzera.

IBARRA ▶

## Matrikula zabalik kurtso berrirako kultur lantegietan

Ibarroko Udaren Kultura Batzordeak antolatu dituen lantegietan izena emateko epea oraindik zabalik dago. Ikastaroen artean, Aretoko Dantzak, Makilajea, Errestaurazioa eta Pintura aurkitzen dira. Izena eman nahi duenak edo informazio gehiago nahi duenak, Ibarroko Kultur Etxera joan beharko du.

hilberria ▶

### Joxe Aizpurua Gorospe

Ez zaitugu ahaztuko

Zure biloba Anek eta Xabierrek

ZARAUTZ, 2007ko urriaren 3a

hilberria ▶

### Martin Gorostidi Balda

Jauna

ATZO hil zen, 78 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golan bego-

Bere emaztea: Pilar Garmendia; alaba: Maribi; ezkon semea: Angel M<sup>a</sup> Urreaga; biloba: Inigo; senideak: Inazio eta Antonia Aduriz, M<sup>a</sup> Jesus (†) eta Jose Bernardo Zubeldia, Rosario eta Anjel Agirrezabal (†), Trini eta Manuel Elizegi, Karmen (†) eta Luis Balda (†), Pakita eta Karlos Gil, Juan eta Angelines Atin, Joakina eta Jose Antonio Elizegi; ezkon senideak: Salome (†) eta Ignacio Mendizabal (†), Ramon eta Juanita Iriarte, Migel eta Joxepa Erviti, Juan Bautista eta Izaskun Astigarraga, Bixente eta Isabel Arabolaza, M<sup>a</sup> Jesus; ilobak: lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuteeta arren etor zaitzetzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, Alegiko JOAN BATAIATZALEA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Txikia ebea, 30, 2.A. Oharra ▶ Gorputz bella Tolosalako Funeraria Vascongada Tanatorioan dago gaur asteazkena goizeko 10:45ak arte.

ALEGIAN, 2007ko urriaren 3an

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAN jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agerituko da

HITZAK GIPIZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

## GIZARTEA ▶

## Agenda 21en irudia eta leloa aukeratzeko lehiaketa

Epea urriaren 31n amaituko da eta irabazleak 300 euro eskuratuko ditu

## ERREDAKZIOA

Mendialdeko Agenda 21 proiektua aurrera doa zonaldean. Dagoeneko Leitzan eta Areson inkestak amaitu dituzte, eta orain proiektua aurrera eramaten ari den lan taldeak (Terra-Prometea) proiektu honekin identifikatzeko irudi eta lelo baten beharra ikusi du eta horretarako lehiaketa bat jarri du martxan. Epea herenegun hasi zen eta lanak urriaren 31ra arte jasoko dituzte.

Lehiaketan interesaturik dagoen 16 urteko edonork har dezake parte eta aurkezturiko lanak, horrelako lehiaketetan gertatu ohi den bezala, orijinalak eta aurrez saritu gabeak izan behar dute eta «Mendialdea» eta «Agenda 21» hitzak agertu behar dituzte.

Lehiakide bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahaliko ditu: bi logotipo bakoitza bere leloarekin. Logotipoa eta lema bananduta aurkez daitezke edo irudi bakar batean integratu. Lanen aurkezpenari dagokionez, proposamenak itxiztatuta gutunazal batean sartuko dira, eta barnean, beste orri batean egilearen izena, deiturak, helbidea eta telefono zenbakia jarri behar dira. Proposamenak Leitzan eta Aresoko udaletxeetan utzi daitezke edo Leitzan Cederna-Garalurrek duen bulegoan. Irabazleak 300 euro irabaziko ditu.

Lanak aukeratzeko epai-mahaia mendialdeko 8 udal-letako eta Cederna-Garalurreko ordezkariak, Nafar Gobernuako arduradunak eta Terra-Prometea lan taldeko ordezkariak osatuko dute.

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Begiradak.** Gure webgunean sartu eta eskualdeetako gai zehatz bati buruzko informazio bateratua topatu ahaliko duzu *Begiradak* atalean.

## ARESO ▶ EHIZA

# Ehiza postuen enkantean diru gutxiago jaso du Udalak

Mikel Baraibar Aresoko alkateak azaldu duenez, «beste urteetan jasotakoaren erdia besterik ez dugu jaso eta azkenean 3 ehiza postu saldu gabe gelditu dira»

## NAIARA GARZIA

Joan den larunbatean egin zen ehiza postuen enkantearen bigarren buelta eta Mikel Baraibar Aresoko alkateak azaldu duenez, «azkenean 3 gelditu ziren saldu gabe». Enkanteak 2 saio izan ditu eta azkenekoa amaitu ondoren Baraibarrek «beste urteetan baino diru gutxiago» egin dutela dio.

Irailaren 22an egin zuten lehenengo saioa eta jende gutxi joan zen. «Larunbat honetan jende gehixeago etorri da», dio Baraibarrek. Prezioei dagokien

ez ere Mikel Baraibarrek behera egin dutela azaldu du. «Aurten beste urteetan jasotakoaren erdia besterik ez dugu jaso. Lehengo urtea ere urte txarra izan zen».

Azkeneko 2 urteetan ehiza postuen prezioek behera zergatik egin duten jakitea ez dela erraza adierazi du Baraibarrek. «Ehiztari batzuk zioten Elutsedergo obrek eragina izan dezaketela, baina ez da erraza zergatia jakiten. Adibidez, enkante berera koadrila bat gehiago etortzen bada, orduan prezioek gora egiten

dute». Beste herri batzuetan gauza bera gertatu dela azpimarratu du Baraibarrek. «Bardirudi jendea oso postu zehaztetara joaten dela», zehaztu du.

## Herriarentzat diru-iturria

Baraibarrek ehiza postuak betidanik ezagutu ditu. Postuak esleitzeko orduan Areson erdiak herriko ehiztariarentzat izaten dira eta gainontzekoak enkantean jartzeko. «Hitzarmenak hori dio, gainera Areson herriko ehiztariak kuota bat

ordaintzen dute, eta kanpokoentzat enkantean jartzen diren ehiza postuak ere beraiek mol-datzen dituzte. Herri bakoitzak hori bere modura egiten du. Guk nahi izanez gero bageneukan postu guztiak enkantean jartzea, baina orduan herriko ehiztariak diru gehiago ordaindu beharko lukete. Leitzan, adibidez, ez dute posturik enkantean jartzen».

Herriarentzat ehiza postuena diru-iturri garrantzitsua da. «Askotan basoak eta pinudiak baino diru gehiago ematen dute».

## LEITZA ▶ POLITIKA

## Juan Mari Barriola mendiko zinegotzi delegatu izendatu dute osoko bilkuran

Ostiralean izan zen eta beste hainbat gai jorratu zituzten batzarrean

## N. GARZIA

Joan den ostiralean egindako osoko bilkuran Juan Mari Barriola mendiko zinegotzi izendatu zuten. Beraz, hemendik aurrera Barriolak beteko du lan hori.

Honetaz gain, EAE taldeak Donostian irailaren 9an izandako gertakarien inguruan aurkeztutako mozioa (leitzar koadrila bat Alde Zaharrean poteoan zebilela ertzaintzak bi jipoitu eta bat atxilotu zuten, «ilegalizatutako manifestazio

baten aitzakian») onartu zuten. Bestalde, Durangoko atentatuaren inguruan alderdi bakoitzak bere proposamena luzatu zuten, bakoitzak berearen alde bozkatu eta gainontzekoak abstenitu zirenez, hiru mozioak onartu egin zituzten.

Bestalde, hirigintzari dagokionez, hilerria zabaltzeko baimena lortu zuten.

Azkenik, POT 2 delakoa izan du zen jorratu zuten beste puntu nagusienetarikoa. Xabier Zabalo Leitzako alkateak horren atzean zer dagoen argitu du. «Kiri-antolamendurako plana delakoaren barruan (POT) Nafarroako Gobernuak Nafarroa 5 zatitan banatu zuten. Guri POT 2 Atlantikoa dagokigu. Honen inguruan alegazioak egiteko epea motz xamarra zenez, orain luzatzea lortu dugu».

hitza

# Harpidedunen txokoa

HITZAren  
HARPIDEDUN  
TXARTELAREKIN  
%5\*-eko  
BEHERAPENA izango  
duzu zure  
EROSKETETAN

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

**donekin**  
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44  
Santa Mari plaza, 1 behea

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

ILUMINAZIOA

**MUGAR**

Nafarroa etorb., 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85  
Pablo Gorosabel, 28 • TOLOSA  
943 65 40 37

**SHANTI KIROLAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Alkiza.** Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Alkizako jubilatuentzat irteera antolatu du urriaren 17rako Treviño, Frias eta Miranda de Ebrora. Izen-ematea, Aiztondoko bulegoetan (943 693930) 18 eurotan.  
**Leitza.** Arkupeak jubilatutako elkarateak Kubara irteera antolatu du urriaren 19tik 29ra, La Habana, Varadero eta Cienfuegos bisitatuz. Izen-ematea, elkartean (1.865 euro).  
**Tolosa.** Hilaren 12an bertso-afaria antolatu du Udaberri dantzari taldeak bere 50. urtemugan, Zerkausian, Egaña eta Arzallus bertsoariekin. handienekin lehiatzen da. Sarrerak salgai Garikano, Kimetz eta Zumbeltz dendetan 20 eurotan.  
**Tolosa.** San Esteban auzoko herri krosa urriaren 12an izango da. Izen-ematea, Shanti Kirolak-en.  
**Villabona.** Biltoki jubilatutako elkarateak irteera antolatu du urriaren 18an Arantzazura. Izen-ematea, 23 eurotan.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Juani Alkortaren margolanak ikusgai daude jubilatuen tabernan.  
**Belauntza.** Igandera arte, 17:00etatik 20:00etara zuhaitzetako Onddoi buruzko argazki erakusketak ikusgai Kultur Etxean. Joxe Manuel Lekuona Aranzadi Zientzia Elkarteko mikologoak osatu du; aditu nahiz zaleei zuzendua dago.  
**Tolosa.** Aitor Tejeriaren margolanak ikus daitezke Sorron marko dendan.  
**Tolosa.** Jesus Elosegik ateratako argazkiak daude ikusgai Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Gotzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia personal* pintura eta eskultura erakusketak daude ikusgai Aranburu Jauregian.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro aztoa, 9. 943 675118.  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.  
 ▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# «Ikusi mendizaleak...»

**TOLOSALDEA ▶** Ohiturari jarraituz, ehunka lagunek erromeria egin zuten Ernio mendira, irailaren azken igandean



Mendizale ugari bildu zen Ernio iragan igandean; eguraldia lagun izan zuten eta giro bikaina sortu zen Zelatungo zelaian. J. SAIZAR

**ERREDAKZIOA**

**E**uskaldunak mendizaleak omen gara; mendiak ezagutzea gustuko omen dugu; mendira lagunartean joatea ohikoa izaten omen da guretzat. Gure eskualdean urteko bederatzigarren hilabeteak, behintzat, bete-betean asmatzen du aurreko baieztapenekin. Izan ere, iraileko igandee-

tan Ernio mendia mendizale ugarien topagune bilakatzen da, aspaldiko usadioari jarraituz. Urola eta Oriako haranen artean kokatzen den Ernioko gurutzeta izango da, ziurrenik, ukituena irailean zehar. San Joan Txikiaren Eguna dela-eta abuztuaren 29an hasi eta igandero-igandero, irailaren azkenekora arte, erromeria egin ohi

dute Erniora batzuk. Batik bat, iraileko azken igandek biltzen du jenderik gehien. Halaxe gertatu zen, hain zuzen ere, pasa den igandean, hilaren 30a. Hego haize leunak lagundurik ehunka lagun hurbildu zen Erniora nahiz Zelatungo zelaietara. Asteasutik, Larrauldik, Alkizatik, Hernialdetik, Albizturretik, Bidegoiandik, Errezildik edota Aiatik abiatutako

jendea bildu zen bertara. Ez ziren sabela hutsik bueltatu etxera izan ere izan zuten zer dastatua. Mendizaleei gosariak, hamaiketakoak eta bazkariak eskaini zizkieten goiz-goizetik lanean ari zirenek: salda, txorizoa, haragia, zuten aukeran gurutzeraino igo ostean jaitziera bideari ekin ziotenek, baita Zelatun geratzea erabaki zutenek ere.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Ibiur Etxeberria Artea**  
 (Amezketeta). Gaur bi urte. Ondo pasa eune bitxo!!

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behe
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...